


Añana

9,4 km | ↑ JOAN-ETORRIA
ERRAZA | 471 m | Walking 1h. 15' | Running 45' | www.walkingandrunning.es

GESALTZA AÑANA > CAICEDO YUSOKO LAKUA (680m)



Ibilbide hau Gesaltza Añanako Villaconeseko Santa Mariaren elizatik abiatzen da, eta xedea Caicedo Yusoko lakua da; bertara heltzeko, lehen tartean gatz larrainak eta Muera ibaia inguratu behar dira. Maldari gabeko bide atseginean Caicedo Yusoko lakura helduko gara; Euskadiko laku natural handiena da. Hezegunea Natura 2000 sarean dago eta nazioarteko garrantziko hezegunea da; izan ere, biodibertsitate handiko lakua da, batez ere uretako hegaztiak eta hegazti migratzaileak.



 Ibilbidea Villaconesko Santa Maria elizan hasten da, Gesaltza Añana udalerrian, Gasteiztik 31 kilometrora.

Ibilbidea Villaconesko Santa Maria elizaren atzean hasten da; egurrezko zubia igaro ondoren (📍 1) gatzagak mugatzen dituen hesiengandik paraleloan leunki gora egiten duen bidea hasten da.

Lehenengo zatian goiko aldetik gatz larrainen eta Muera ibaiaren ibilguaren ingurutik oinez egingo dugu, marka gorriek eta zuriek jarraituz (📍 2). Beti eskuineko bidea jarraitu behar da.

Denbora gutxian seinale gehiago dituen mendi bide bat dago; eskuinetik jarraitu behar da lakuaren eta Fontecharen norabidean (📍 3). Gesaltza atzean utziz ibilbide atseginari jarraituko diogu, beti seinaleztatuta dagoena, eta norberak jarraitu nahi duen erritmoak zehaztutako zailtasuna besterik ez duena. Minutu gutxi barru seinale hori bat agertuko da, lakura eta Peña La Uñara joateko bidea ezkerrean dagoela adierazten duena (📍 4).

Ibilbide atsegina da, desnibelik gabekoa; hortik errepide batera iritsiko gara, eta




Walking & Running ARABA-ÁLAVA

bertan dagoen seinaleak adierazten du Peña La Uña aurrera jarraituta dagoela; hor, asfaltoko bidea jarraituko dugu Lakuko Andra Mariaren (📍 5) ermitara iritsi arte, eta ermita hori bisitatuko dugu hortik hurbil dagoen Caicedo-Yusoko lakura (📍 6) joan aurretik. Bidean beherantz eginda eskuineko bidea hartuko dugu (📍 7) lakua (📍 8) inguratzen.

Marka zuriari, berdeari eta gorriari jarraituz burdin hesi bat (📍 9a) (📍 9b) atzean utziko dugu baso baxuan sartzeko, lakua beti eskuineko aldean utziko dugularik.

Bueltako bidea bide beretik egingo dugu, baina azkenean Gesaltza Añanan dagoen Acreko Done Joanen monasterioa (📍 10) bisitatzeko beste bide bat hartuko dugu. Azken zatia herria zeharkatzen duen bidetik egingo dugu.



Interesguneak

- Añanako Gatz Harana.
- Jauregien ibilbidea.
- Valderejo-Añana BTT zentroa.
- Iruña Veleiako aztarnategi arkeologikoa.
- Sobrongo uraren museoa.
- Valderejoko Parke Naturala.
- Santa Katalina lorategi botanikoa.

Ibilbide gehiago hemen

www.alavaturismo.eus
www.ananaturismo.com

Baronatarren dorretxea 📍



araba álava
foru aldundia diputación foral

alava
turismo.
elis



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

TURISMO, MENDIARRITZA
ETA KONTRUINO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO